

## Musika, antzerkia eta dantza, Bastero Kulturguneko udaberriko programazioaren protagonista

**Andoainen, 24-03-15.-** Aurki sartuko gara udaberrian, eta horrekin batera, Bastero Kulturguneko programazio berria izango du. Oraingoan ere, puntako ikuskizunez disfrutatu ahal izango da apirila, maiatza eta ekaineko hilabeteetan.

Besteak beste, Izarok bere azken lana (Cenodenero) aurkeztuko du apirilaren 12an. Ines Osinaga sortzaileak ere 'Itsasoa da bide bakarra' bere lana ekarriko du maiatzaren 31n, eta Andoainen izango dira Idoia Asurmendi edo Juantxo Zeberioaren Tenpo taldea ere, azken hau ekainean. Nabarmentzekoa da baita ere Udalak Luis Fracari eskaini asmo dion 'inmemorian' kontzertua; gogoratuko dugu Udal Musika Bandaren eta Musika Eskolaren zuzendari izandakoa aurrez zendu dela.

Musikaz harago, antzerkiak ere izango du tokia; Txalo produkzioak-ek Zuhaitz Gurrutxaga eta Iker Galarzaren 'Almazenean' lana ekarriko du apirilean, 'Sex sua' antzerki musikatua taularatuko du Andoni Mutiloak maiatzean, eta Marie de Jonhg-ek 'Mr.Bo' haur ikuskizuna ekarriko du ekainean.

Oihana Varelak bere 'Plañideras' proiektua ere eszenaratuko du maiatzean eta egun batzuk lehenago izango da Basteron Sara Escudero 'Tiempo al tiempo' bakarriketarekin. Ezin ahaztu Urki Dantza taldeak ikasturte bukaerako emanaldia izango duela maiatzaren 19an.

Sarrerak martxoaren 20tik aurrera egongo dira eskuragarri bazkideentzat, Basteroko lehiatilan edo kutxabank-en bitartez; publiko orokorrak martxoaren 25etik aurrera egin ahal izango du, toki berberetan.

